Herri Aldizkaria
Otamendi
2000ko uztaila 59. alea

Urretabizkaia anaiak profesionaletara

MEDRANO AHIZPAK, BATXILERGO IRAKASKUNTZAN AITZINDARI

ELKARRIZKETA: PILI GABIRONDO

SANTA ISABELAK, GELTOKIETAKO JAIAK...

Santa Isabelak 2000

Girorik onena gurean aurkituko duzu

kafeneta kafe
Eliz-kale, 9
☎ 943 72 28 78

POLITENA TABERNA

TXOKO TABERNA
Bidezar

ALASKA TABERNA
Kalebarren, 1
☎ 943 72 56 50

Iburreta JATETXEA
Piedad kalea, 14
☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi 5
☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

HUTS
TABERNA

ARKUPE TABERNA

«TINO»
Kafetegia - Izozkitegia
Soraluze, 7
☎ 943 72 25 26
ZUMARRAGA

GauTxori
ZUMARRAGA
Kalebarren 16 (Zumarraga)

Alexander Croissanteria
ALEXANDER KROISANTEGIA
Piedad, 16 ☎ 943 72 18 21

ARRUABARRENA
KAFETEGIA-GOZOTEGIA
Legazpi, 8
☎ 943 72 28 71
ZUMARRAGA

HIRUKIA

Oraingo honetan uda hasiera honetan freskatzeko moduko argazkia duzue ikusgai. Lagun talde honek 1969an ez zuen oso urrutira joan beharrik izan eskian aritzeko, Beloki inguruan nahiko elur egin baitzuen.
Ezkerretik eskubira: Mikel Mendizabal, José Mari Agirrebeña, Sole Urtaran, Rufino Mendizabal, Mertxe Gutiérrez, Patxi Bastida, ..., Demetrio Fernández eta José Luis Agirre.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Jacinto Orozko Urretxuko udal-langilearen jubilazioa

Ekainean, 1987az geroztik Urretxuko udaleko obren eta hilerriaren arduraduna izan den Jacinto Orozko jubilatu zen eta omenaldi xume moduan Pello González alkateak udalaren izenean Urretxuko intsignia eta armarria daraman erlojua oparitu zizkion. Udaleko langileek, berriz, agur afaria eskaini zioten maiatzaren 31an.

Urte hauetan guztietan Jacintok denetarik egin behar izan du: igerilekua ireki zenean bertako arduradun lana, udaletxeko langileak antolatu aparejadorearekin batera, hilerriko lanak...

Jacintori udalarentzat lanean aritu den urte hauetako guztietako balorapena egitea eskatu genion: "oso gustura ibili naiz lanean eta nire asmoa 65 urte bete arte jarraitzea zen, baina osasun arazoek ez didate utzi. Pozik haundiena helburuak betetzen zirela ikustea izan da. Sekula igerileku batean lan egin gabea nintzen eta uren tratamendua ikasi behar izan nuen, baina dena ondo atera zela ikustea oso pozgarria izan zen."

Hilerriko lanak, ordea, ez ditu hain gustukoak izan eta baditu lan honen inguruan hainbat pasadizu: "Hilerrian beldur handia pasatzen da eta lehenengoz joan nintzenean zer esanik ez. Oso lan gogorra da. Behin hilerrian harri bat altxatzen ari nintzela talkietik deitu zidaten eta nirekin zeudenak ihesi atera ziren. Beste behin, zulo batean sartu nintzen garbitzeko eta ateratzen ari nintzela emakume bati sekulako sustua eman nion eta hau ere ihesi atera zen."

Jacintok utzitako hutsunea Albisturgo semea den Patxi Lazkanok hartu du eta horretarako urtebete igaro du Jacintoren laguntzaile lanetan.

Jacinto Udaletxeko ate aurrean bere ordezkoa den Patxi Lazkanorekin eta alkatearekin.

Jubileoaren ospakizuna Antion

Urretxu eta Zumarragako parrokiek antolatuta 6 eta 12 urte bitarteko 400dik gora haur elkartu ziren Antion Jubileoa ospatzeko maiatza amaierako arratsalde eguzkitsu batean. Haurrak eta katekistak Zumarragako trintxeratik Antio aldera abiatu ziren eta bertan elizkizun laburra ospatu ondoren, askariaz eta jolasez gozatzeko aukera izan zuten. Arratsaldea giro alaiean igaro ondoren, nekatuta baina pozik, herrira itzuli ziren. Hurrengo hilabeteetan herriko gazteak eta helduak izango dira jubileoa ospatuko dutenak.

Maitane Andueza, 9. munduko trialsin Txapelketan

Ekaineko alean aurreratu genuen bezala, Maitane Andueza ezkiotarra Sierra Nevadan izan zen ekaina hasieran Munduko Trialsin Txapelketan parte hartzen. Txapelketa oso baldintza gogorretan izan zen arren, 2.500 metroko altueran eta 30ºko hotzberoaz, Maitane ez zen kokildu eta 5 ordutan antolatzaileek prestaturiko oztopoak gainditu ondoren, 9. postua lortu zuen. Berez, mundu mailako 9. postua lortzeak meritu itzela badu, Maitaneren kasuan meritua are handiagoa da, 14 urte eskaxekin senior maila duten munduko neska onenekin lehiatu behar izan baitzuen.

Datorren urteko txapelketa EE.BB.etako Coloradon izango da eta Maitaneren trebezia ikusita, ziur gara bertara joateko aukera eskaintzen badiote Euskal Herria primeran ordezkatuko duela.

Antton Fernández, Eskolarteko Bertso Txapelketako irabazle



Antton Fernández urretxuarrak Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak antolatzen duen Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du 14-18 urte bitarteko mailan eta bertso paper modalitatean. Honetaz gain, batbateko modalitatean ere parte hartu zuen eta baita finalera heltzea lortu ere!

Zorionak Antton eta segi bertsotan orainarte bezain fin, ea hemendik urte batzutara txapelketa nagusian ere zure bertsoez gozatzeko aukera dugun!

Hona hemen Anttonek ida-tzitako bertso irabazleak:

Gaia: Nerabeoi ere axola zaigu gure herriko egoera.
Doinua: Esperantzarik gabeko zenbait.

Nerabe begiz inguruari
begira jarri natzaio,
gu ez baikinen irakasleen
morroi izateko jaio,
zapalketari langabezia
gaineratu behar zaio.
Era berean bihurtu gara
borrokalari txit iaio,
Euskal Herriak askatasuna
behar baitu, zer arraio!

Okupatzaile, okupatuak,
gatazkaren hainbat buru,
zorigaiztoak deuseztu ditu
hamaika sendi inguru.
Burujabetzaz goza litekeen
eguna heltzeko aiduru
herriak hitza eduki dezan
guztiz legezko helburu,
herriko plazan argi dion lez
bakea behar baitugu.

Hernani eta Oreretako
atxiloketen harira
agertu dira koktel beroak
eta pistolen dizdira.
Eskubiderik oinarrizkoen
diren horiei begira
euskal gazteok gara gaitezen
oztopatzen ari dira.
Noiz luzatuko dugu pausoa
tunel beltzetik argira?

Gainzuri ikastetxeak 12 ikasgelaz osatutako eraikin berria izango du

Ekainaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa sailburua den Inaxio Oliverik, Aitor Gabilondok, Zumarragako alkateak, eta Pello Gonzalezek, Urretxuko alkateak, Gainzuri ikastetxeko eraikin berria erakitzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten Urretxuko udaletxean.

Eraikin berria Labeaga eskolak zeuden lur sailean kokatua egongo da, Gainzuri eskolaren orainarteko eraikin bakarraren ondoan beraz, eta bi herriotako eskola publikoak bateratzeko bidean berebiziko garrantzia du, bi eraikinek Gainzuri eta Zelai Arizti ikastetxeetako ikasle guztiak bilduko baitituzte.

Eraikitze lanen aurrekontuari aurre egiteko Zumarragako udalak 85 milioi jarriko ditu, Urretxukoak 50 eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzak.

Lankidetza hitzarmenaren ondoren, planuen diseinuaz arduratu diren bi arkitektuek eraikin berriaren ezaugarriak zeintzuk izango diren azaldu zuten. Honek 12 ikasgela, jolastokia eta jantokia izango ditu, Gainzuriko egungo eraikinarekin komunikatua egongo da. eta Labeaga kaleko eskilaretatik sarrera izango du.

Eraikuntza lanen epeei dagokienez, Iñaxio Oliverik eraikuntza lanen adjudikazioa aurten egitea espero du eta Pello González alkateak esan zuenez Labeaga eskola zaharren erausketa aurtengo uztailean egiteko asmoa dute eta 2002. urterako eraikuntza lanak amaituak egotea espero dute.

MASTER HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Varmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

ALEX-KIROLAK
alejandro albisua
kirol gaiak
Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Goierriko Itzulia irailaren 15,16 eta 17an

Afizionatu mailako txirrindularitza egutegian leku garrantzitsua duen Goierriko itzuliko antolatzaileek iaz hasitako lanaren ildotik jarraitu dute aurtengoan ere. Jakingo duzuen bezala, iaz beste antolatzaile talde batek hartu zuen lanaren ardura eta beraien ekarpen nagusia itzuliari eskualde mailako izaera ematea izan zen. Hori dela eta, aurten ere itzuliaren lehenengo etapa Zumarragan amaituko da, Antion hain zuzen ere. Bigarren etapa, Urretxuko Aldaparen babesa duena, Santa Barbaran amaituko da iaz bezala eta azkenekoa Labeaga kalean. 3 etapetatik 2 mendate gainetan amaitzen direla kontuan izanik, argi dago aurtengo itzulia are erakargarriagoa izango dela ikusleentzat.

Ekainaren 8an Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko presidentea den Jose Luis Arrieta gure bi herriotan izan genuen antolatzaileekin batera 3 etapak nondik igaroko diren ikusten eta hauek prestaturiko egitarauarekin oso gustura agertu zen. Antolatzaileek prestatutako ibilbideak Federazioaren oniritzia jaso du beraz eta irailaren 15,16 eta 17an 23 urtez azpitiko txirrindulari onenek eskainitako ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu.

Santa Isabeletako egitarauaren azala

Zaloa Arnaiz usurbildarrak irabazi du aurtengo Santa Isabel jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa. Lehiaketara 20 lan aurkeztu ziren eta epaileek lan zaila izan zuten, aurkeztutako lan batzuk oso maila ona baitzuten. Azkenean Zaloaren lana izan zen aukeratua eta honenbestez usurbildarrak 50.000 pezetako saria eskuratu du.



BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA

Merkataritza Euskalduntzeko Plana

Balentiña: jatetxea eta sagardotegia

Zintzo-Mintzorekin lanean hasi berria den etxe bat dakarkizuegu oraingo honetan. Euskalduntzeko orduan etxe bakarra izanda ere, bere barnean bi giro desberdin ditu: Sagardotegia eta jatetxea. Bietan dago karta eta eguneko menua jateko aukera.

Sagardotegia urte guztian irekita egoten da. Bertan, sagardotegiko jakiak dasta daitezke: bakailao-tortilla, txuletak, bakailao frijitua piperrekin, intxaurrak menbrilloa eta gaztarekin... Baina sagardotegian janaria bezain inportantea da edaria, eta Balentiñan hiru sagardo kupel dituzte, hirurak sagardo diferenteekin bezeroak denak dastatu eta gustukoen zein duen aukera dezan. Hala ere, ardoa nahiago duenak txakolina ere badu aukeran, hau ere txotxetik.

Plater elaboratuagoak nahiago dituztenentzat, berriz, jatetxea dago alboan. Jatetxean karta zabala dago plater nahiz ardo aukera haundiarekin. Gu hara joan gara uda honetarako zer plater dituzten jakitera eta adibide bezala hona hemen sukaldarietako batek, Jose Franciskok hain zuzen ere, aurkeztu digun platera:

ZAPOA TXIRLEKIN LABEAN ERRETA, LASTO-PATATAK ETA PERREXIL-OLIOAREKIN.

4 pertsonentzat osagaiak:

- 1 1/2kgr. zapo garbia (bururik gabe)
- 1/2 kgr. txirla fin
- 3 patata
- 4 baratxuri ale
- perrexil eskutakadatxo bat
- oliba-olio birjina
- 2 kaiana (pipermin gorri lehor eta pikantea)
- Itsasoko gatza
- Sagar-ozpina edo sagardoa

Zapoa gaztu ondoren plantxan doratu. Labea 180 ºCtan berotu eta bertan zapoa 10-12 minututan egin. Zapoa labean dagoen azken bi minututan txirlak sartu ireki daitezen.

Bitartean, lasto-patatak (patata ahal den finen luzetara moztuta) eta perrexil-olioa (biak bat egin arte perrexila eta olioa ontzi berean sartu behar dira) prestatu.

Zapoa labetik ateratakoan, patatak frijitu. Zartagin batean olioari laminetan moztutako baratxuria, ozpina eta kaiana bota. Baratxuriak gorritutakoan, nahastura hau sofrito modura zapoari botako zaio.

Zerbitzeko, plater erdian zapo errazioa jarri eta sofritoa gainetik bota. Lasto-patatak kabi moduan jarri almejen ondoan. Eta azken ikutua emateko, guztiak perrexil-olioarekin inguratu.

Planter honentzako aproposa litzateke 4ºCtan hoztutako txakolina. On egin.

Honelako platerak dastatu nahi izanez gero, hona hemen datu interesgarri batzuk:

LEKUA: Sagardotegia: 100 pertsonentzat.
Jatetxea: 70 pertsonentzat.
JAI EGUNA: Astelehen gaua.
EGUNEKO MENUA: 1200.
TELEFONOA: 943 72 50 41.

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak ● Bataioak ● Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

ARKYPE TABERNA

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

Josu Aztiria Urtaran

Euskararen territorio librea

Sekula ez zaizkit western pelikulak gehiegi gustatu. Indiotribu ezberdinen likidazioa naturaltasun osoz agertzen dizkiguten filmeak ez naute gehiegi motibatzen. Dirudienez, batzuek kulturalki itsusiak, ahulak eta gaiztoak direnak zapaldu behar dituzte euren kategoria azaltzeko. Zintzoak egoteko halabeharrez egon behar baitute gaiztoak. Betidanik sahiestezina suertatu zait beraz, euskararen herriaren egoerarekin paralelismorik egitea.

Euskararen territorio okupatuan ere badugu gure western partikularra. Eszena asko baina beti pelikula bera. Sheriff gehiegi eta indioak eskas. John Wayne gogorraren pelikula gehiegi ikusi dituen Migueliko Sanz Sheriffak bere eremuko indioak museorako pieza bitxi gisa nahi ditu bakarrik. Iparraldean, aldiz, laster asko Sohüta edo Atharratzeko azken üskal aborigen autoktonoak erreserbetan ikusiko ditugu.

Baskongadetan, soberako gantzak aparte, indioak eta beren hizkuntza nahiko ongi. Kontseiluaren Plan Estrategikoa eta Jaurlaritzako Biziberritze Planen ondoren euskarak esparru berrietara jauzi garrantzitsua egin du. Hala ere, optimismo itsu gehiegi ez da komeni. Esaterako, 1981. urtetik hona 190.682 herritar gehiagok euskaraz jakin arren, euskararen erabilera ez da igo. Eztia eta ozpina.

Bi erronka ikusten dira bereziki: euskararen erabilera areagotzea eta orainarte ikutu ez diren esparru gehiago bereganatzea.

Urretxu eta Zumarragan ere gauza bera. Pozteko eta kezkatzeko arrazoiak ugari. Asko aurreratu da, ekimen herritarrak jokatu duen papera, bai eragile bai akuilu bezala erabakigarria izan baita (Ikastola, AEK edo Zintzo Mintzo besteak beste). Baina, asko dago egiteke. Ez dugu etsipenean erori behar, ordea. Egindakoak ematen digun pozetik eta energiatik abiatu behar dugu.

Bi erronka ikusten dira bereziki. Batetik, euskararen erabilera areagotzea eta bestetik, orain arte ukitu ez diren esparru gehiago bereganatzea (lan-munduan sartzea, esaterako, ezinbestekoa da).

Aipatutako erronkei erantzutera datozen Ttipi-Ttaparen sorrerak, Zintzo Mintzok jatetxeak euskalduntzeko daraman plangintzak edo eskualdean, seguraski Deba aldeko esperientziatik, eratu nahi den komunikazio-sareak haize bafada freskoa eman diote euskararen normalizazioari gure herriotan. Euskararen beharretara egokitutako komunikazio-sarea eratzea oso garrantzitsua da, nahiz eta herritar gehiago aztoratu den UTBren ostiral gauetako lukainka, isuri eta bestelako piztiengatik, euskararen presentzia negargarria eta urriagatik baino.

Ez dezagun indioarena Santa Ixabel egunean bakarrik egin. Euskaradunak ez gara museotarako edo erreserbatarako jaio. Territorio librean bizitzeko baizik. Euskararen territorio librean.

Ferretería BRAVO, S.L.
INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIAK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Zuen etxean nola erabakitzen duzue oporretara nora joan?



Jesus Akizu

Emazteak aukeratzen du nora joan eta nik hark esandakoa egin behar! Dena den, beti gustukoak ditudan lekuak aukeratzen dituenez, oso gustura joaten naiz.

Marian Larrañaga

Urtero hondartza duen lekuren batera joaten gara eta hondartzara joatea atsegin dugunez ez dugu eztabaidarik izaten.

Josefa Sánchez

Senarra eta biok Salamancako herri berberakoak garenez, urtero bertara joaten gara eta ez dugu eztabaidarik izaten.



Txema Maiza

Oso gutxitan joaten gara oporretara eta joaten garenean emaztea eta bion artean aukeratzen dugu nora joan. Gai honen inguruan ez dugu eztabaidarik izaten.

Sonia Berzosa

Mutil lagunarekin joaten naiz oporretara eta nik aukeratzen dut nora joan. Normalean Soriara joaten gara, baina noizbait mutilak beste nonbaitera joatea ere erabaki izan du.

David Bilbao

Oporretara nora joan ustekabean erabakitzen dugu.Normalean ez dugu eztabaidarik izaten gai honen inguruan, gutxitan joaten gara eta.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Victoria eta Josefa 1981ean beraien ikasle ohiek eskaini zieten omenaldian.

Medrano ahizpak, bi herriotako batxilergo irakaskuntzan aitzindari

Medrano familia aski ezaguna da gure bi herriotan, ia 40 urtetan Urretxu, Zumarraga eta inguruko beste herri batzuetako haur eta gazte asko Victoria eta Josefa ahizpek sortu zuten eskolatik pasa baitira.

Dena den, Zumarragara heldu aurretik Medrano sendiak ezagutzea merezi duen historia luzea bizi izan zuen. Nafar jatorrikoak izanik, aita Oñatira joan zen albaitari lanak egitera eta bertan bizi izan ziren Guda Zibila bitartean. Familia abertzalea zenez, gudak iraun zuen bitartean eta guda ostean zuten ia guztia galdu zuten eta aitak presio gogorra jasan ondoren bere lanbideari uko egiten ziola sinatu behar izan zuen.

Baina bere lanari uko egitera behartu zuenak, 7 seme-alaba zituen gizona lanbiderik gabe uzteaz damututa edo, handik gutxira barkamen eske joan zitzaion eta hiru herri eman zizkion aukeran, bertan lan egin zezan. Oñatitik gertu zegoela eta, Zumarragara etortzea erabaki zuten.

Gurasoek hezkuntzari garai hartan oso arrunta ez zen garrantzia ematen zioten eta ahaleginak egin zituzten seme-alaba guztiek goi mailako ikasketak egin zitzaten. Honela, Victoria eta Josefak magisteritza ikasketak burutu zituzten eta Zumarragan batxilergo arteko ikasketak eskainiko zituen eskola zabaltzea erabaki zuten. Horretarako Kalebarrenen lokala alokatu eta mota honetako lehen eskola zabaldu zuten. Bi herriotan lehenengoa eta bakarra izan zen urte askotan eta institutuaren lana bete zuten hau eraiki bitarteko urteetan.

Eskola honetan egindako lanari buruz hitz egiteko, Maria Teresa eta Mari Cruz Medranorekin egon gara, Victoria eta Josefari eskolako lanetan sarritan lagundu behar izan zieten ahizpak.

Non ikasi zuten zuen ahizpek?

Gure gurasoek sekulako ahaleginak egin zituzten ikasi genezan eta Oñatin batxilergoa egin ondoren, bi ahizpak Bilbora joan ziren magisteritza ikastera. Berez, Josefak farmazia ikasi nahi zuen eta Victoriak zientziak, baina anai-arreba gehienok unibertsitatean ikasteko adinean geundenean aita lanpostuari uko egitera behartu zutenez, ikasketa xumeagoak egin behar izan zituzten eta berehala lanean hasi. Garai hartan ez zeuden beka eta antzeko diru-laguntzarik eta herrian oso jende gutxik zuen karrera bat ikasteko aukera, gure gurasoei, beraiek egin zuten esfortzua eskertu beharrean gara.

Nolatan erabaki zuten herrian eskola bat zabaltzea?

Garai hartan batxilergoa egiteko Donostiara joan beharra zegoen, hemen ez baitzegoen emango zuen ikastetxerik, hori dela eta, oso jende gutxik egiten zuen batxilergoa. 40 hamarkada hasieran gure ahizpek ikasketa hauek herrian eskaintzea erabaki zuten eta horretarako Kortaberri taberna gainean lokal bat alokatu eta 60 ikasle inguru hartzen zituen Arantzazuko Ama eskola zabaldu zuten. Herrian ikasturtea burutu ondoren, ikasleak Donostiara joan behar izaten zuten azterketak egitera. Orain baliabide askoz ere gehiago daude, baina garai hartan gure ahizpek punta-puntako irakaskuntza eskaintzen zuten. Bien

artean irakasgai guztiak ematen zituzten eta hemendik beste eskola batzuetara irteten ziren ikasleak matematika, latin, fisika eta kimikan oso ondo prestaturik irteten ziren. Karreraren bat ikasten hasten zirenean, gure ahizpei bertan ikasten ari ziren hainbat gauza jada hemen ikusiak zituztela esaten zietela gogoratzen dugu. Hau gure ahizpek oso prestaketa sakona zutelako zen, gurasoek askotan zenbait irakasle etxera ere ekartzen baitzizkieten.

"Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten eta hau garai hartan ez zen batere arrunta"

Bi ahizpen artean 60 ikasleri irakasgai guztiak ematea ez zen lan makala izango...

Bi ikasgela zituzten eta oso ondo antolaturik zeuden. Klase bakoitzean bi edo hiru ikasturteko ikasleak elkarrekin egoten ziren eta beraz, gazteenek zaharrenei erakusten zietena ere poliki-poliki barneratzen zuten. Bestalde, neska-mutilek elkarrekin ikasten zutela esan beharra dago, hau garai hartan ez baitzen batere arrunta. Hori dela eta, inspektorea etortzen zenean arazoak izaten zituzten. Azkenean neska-mutilei batera irakastea debekatu zieten eta bi txandatan eman behar izaten zituzten klaseak. Eskola zabalik egon zen urte haietan sekulako lana egin zuten, askotan goizeko 3ak arte ere geratzen ziren lanean, eta azterketak zeudenean familiako guztiek laguntzen genien.

Zein adin bitarteko ikasleei ematen zieten klase?

Txikienak gure ahizpenean hasten ziren ikasten eta oinarrizko batxilergoa amaitu ondoren irteten ziren bertatik. Batxilergoko 4. maila eta rebalida arte ematen zuten. Udan ere klaseak ematen zituztenez, ekainean suspenditzen zutenentzat, urte askotan sekulako lana egin dutela esan daiteke. Bestalde, Legazpiko jendea ere etortzen zen eta Arrasate eta Eibarreko ikasleak ere egon zirela gogoratzen dugu. Izan ere, Victoria eta Josefaren eskolak ospea hartu zuen eta Donostian azterketak antolatzen zituztenek ere behin baino gehiagotan zoriondu zituzten.

Klaseak gazteleraz ematera behartuta egon arren, euskaraz soilik zekiten ikasleak ere joango ziren...

Euskaraz ez zegoen irakasterik, baina euskaraz soilik zekitenei euskaraz esplikatzen zitzaizkien gauzak gazteleraz ikasi bitartean. Guk jasandako arazoak ikusita, euskaldunei euskaraz hartu izanaz oso harro gaude. Oso ondo iruditzen zaigu edozein kargu publikori euskaraz jakitea eskatzea eta gure aita zenak ere, duela 70 urte jada, Oñatira lanera joan zenean, euskaraz lan egiteko gaitua zegoela erakusten zuen titulua atera behar izan zuen.

Noiz eta zergatik itxi zuten eskola?

Esan bezala, ahizpek eskola zabaldu aurretik, bi herriotan ez zegoen batxilergoa ikasterik eta urte askotan beraiek eskaini zuten zerbitzu hau. Baina institutua zabaldu zenean, urte luzeetako lanaren ondoren, errelebua heldu zitzaien eta eskola itxi zuten. Institutuaren sorrerarekin azterketak herrian bertan egin zitezkeen, alde ederra! 81ean itxi zuten Victoria eta Josefak eskola eta beraien ikasle izandakoek omenaldi bat eskaini zieten. Egun hartan jatetxe berean Iparragirreren mausoleoa inauguratzera etorri zirenak zeuden eta orduan Eusko Jaurlaritzan zeudenak, Carlos Garaikoetxea buru, gure ahizpak zoriontzera etorri ziren guregana.

Zuek zertan aritu zineten lanean?

Ni bulego lanetan aritu nintzen lanean, baina eskolan lagundu beharra zegoenean ere bertan izaten nintzen (Mari Cruz). Ni ere irakaslea izan nintzen, baina Orbegozo lantegiak bere langileen semealabentzat zuen eskolan (Maria Teresa). Garai hartan oso irakasle gutxi zeuden eta haur pilo bat jaiotzen zenez, klase bakoitzean 40 bat ikasle izaten genituen. Gure ahizpa Conchita ere irakaslea izan zen Urretxun eta ikasle piloa zituen bere ardurapean. Honek sekulako ahalegina egiten zuen eta hezkuntza arduradunek estima handian zuten. Behin baino gehiagotan ospitaleren batera joan eta mediku edo erizainen batek Conchitarekin ikasi zuela gogoratu digu. Conchitak izugarri balio du eta askotan familia arazoen konponbide bila ere berarengana jotzen zuten.

Zertan uste duzue aldatu dela irakaskuntza?

Orain askoz ere baliabide gehiago dituzte eskoletan, gure garaian sekulako esfortzua egin behar izaten genuen oso baliabide gutxirekin. Bestalde, egun oinarrizko gauza batzuk okerrera egin dutela uste dugu: gramatika alorrean, badirudi jende asko ez dela eskolatik pasa. Hori bai, irakaskuntza metodoak izugarri aurreratu dira eta ordu gutxiagotan eduki bera eman daiteke. Gure garaian eskolan errespetu handiagoa zegoela uste dugu, etxetik jada oso ondo irakatsiak joaten baitziren.

Bukatzeko, zuen heziketaren barne, egun hain ohikoa den atzerrira joateko aukera ere izan zenuten...

Ni Ingalaterran izan nintzen denbora luzez ikasten hango zenbait unibertsitatetan etxera irakastera etortzen zitzaigun irakasle ingeles baten bitartez (Maria Teresa). Kuriosoena emakume honen gomendioz Ingalaterran frantsesa ere ikasi nuela da eta hau orain hemendik ateratzen diren gazteei ere gomendatuko nieke. Zergatik? Ingelesez inguraturik nengoela joaten nintzen klaseetara eta honela, bide batez, beraiekin atzerriko bi hizkuntza ikasteko aukera izan nuen: frantsesa eta ingelesa, esplikazio guztiak ingelesez ematen baitziren, noski. Bertan ingeleseko klaseetara joan izan banintz, herrialde ezberdin askotako ikaslez inguraturik egongo nintzateke eta ingelesa soilik ikasiko nuke. Bestalde, Ingalaterran nengoeneko oso istorio berezia dut kontatzeko. Oñatiko apaiz Agustino batek Shakespeareren lanak euskarara itzuli zituen eta Britaniar Museora eramatea eskatu zidan, bertan munduko liburutegi nagusietako bat baitago. Lehen aipatu dudan irakasle ingelesak liburuak bertan uzteko baimen guztiak lortzeko lan egin ondoren, niri utzi zidan liburuak apalean uzteko baimena, niretzat ohore handia zela baitzekien. Hau 1975eko uztailean izan zen eta handik hilabete gutxira liburua onartzen zutela erantzun zidaten, horretarako euskarara eginiko itzulpena behar bezain txukuna zela ziurtatzeaz arduratu ziren.

"Eskola ia 40 urtez, 40 hamarkada hasieratik 80 hamarkada hasiera arte, egon zen zabalik"

ORAINGO HONETAN GUSTURA ASKO IZANGO ZARETE OTAMOTZ IRAKURTZEN, IKASTURTEA AMAITU ONDOREN GIRO PAREGABEA BAITUZUE KIROLA EGITEKO! GU ERE, OPORRAK GERTU DITUGULA ETA GUSTURA GAUDE, BAINA HELDU BITARTEAN GAINZURIKO IKASTURTE AMAIERAKO FESTA ETA TERRASSAKO IKASTETXE PUBLIKOKO IKASLEEK IKASTOLAKOEI EGINDAKO BISITALDIA JASO DITUGU TXIKIMOTZEKO BI ORRIALDE HAUETAN. ONDO PASA OPORRETAN!

Ikastolakoen eta Terrassako La Roda ikastetxekoen elkartrukea

Ikastolako 6. mailako ikasleek 1997an burutu zuten lehenengo aldiz Terrassako (Bartzelona) "La Roda" ikastetxe publikoko ikasleekin bi asteko elkartrukea. Geroztik ekintza bera lau urtez jarraian gauzatu da.

Aurten apirilaren 3tik 7ra bitartean Urretxu-Zumarragako haurrak Terrassan izan dira eta maiatzaren 29tik ekainaren 2ra arte hangoak hemen. Egun hauetan kataluniarrek Urretxu eta Zumarragaz gain, Gipuzkoako tokirik esanguratsuenak ezagutzeko aukera izan dute. Gainera, irakasleekin egiten dituzten ekintzez gain, familiekin bertako ohiturak eta eguneroko bizimoduaz jabetzeko aukera ere badute.

Baina elkartrukea ez da euskaldunek Katalunian edo kataluniarrek gure artean igarotzen dituzten egunetara mugatzen. Elkartrukearen prestaketan lehenengo ekintza, besteei bidaltzeko, ikasleen aurkezpena prestatzea da. Hormirudi batean bakoitzak bere ezaugarri nabarmenenak azaltzen ditu eta ondoren, bideo grabazio batean, detaile gehiagorekin egiten du. Jardun hauek oso motibagarriak dira, eta haurrek bidaltzeko izaten duten poz bera sentitzen dute Terrassakoena jasotzeko.

Hona hemen Urretxu eta Zumarragatik joandako Terrassako alkate berriak.

Gabonetan hango eta hemengo irakasleak erdibideko puntu batean elkartzen dira eta bertan, ikasleen ezaugarriak kontuan izanik, bikoteka antolatzen dituzte, zein zeinen etxera joango den argi utziz. Bilera hau oso garrantzitsua izaten da elkartrukea arrakastatsua izan dadin. Haur bakoitzak bere etxera nor etorriko den jakiten duen bezain pronto, idazteari ekiten dio. Horrela bien arteko afektibitatea pizten dute eta elkarrezagutza lortzen dute.

Urtero, elkartrukearen aurrean, urduritasuna, kezkak eta zalantzak nagusitzen dira ikasle, irakasle eta gurasoengan, baina, burutu ondoren, beti balorazio baikorra izaten da, helburuak bete direlako eta esperientzian parte hartzen duten guztiek oso gustura bukatzen dutelako.

Aurtengo jarduna ere oso arrakastatsua izan da eta honek bosgarrena egiteko .gogoa pizten du. Animo, eta datorren urtean berriz eta hobeto!

URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA
Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea
Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

Gainzuriko ikasle eta irakasleen ikasturte amaierako festa

Urteroko ohiturari jarraituz, Gainzuri ikastetxeko ikasle eta irakasleek ikasturte amaierako festa ospatu zuten Santa Barbaran ekainaren 2an. Beraien asmoa festa astebete lehenago ospatzea zen, baina eguraldi txarra zela eta, astebete atzeratzea erabakia zuten eta bete-betean asmatu zuten, eguraldi paregabea izan baitzuten. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako haurrak goizean goiz igo ziren Santa Barbarara irakasleekin batera, mendizale onen legea jarraituz, eta bertan hainbat jolasetan parte hartu eta eskulan ugari egin ondoren, arratsaldean herrira jaitsi ziren. Ikastetxe inguruan zain zituzten gurasoek inbidiaz begiratuko zituzten euren seme-alabak, eguzkiak gogoz jo baitzuen egun hartan eta haurrek uda hasi aurretik kolore polita hartzeko aukera izan baitzuten!

CHIARA
Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak
Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Pili Gabirondo: "Kalean dagoenarentzat ezinezkoa da gartzelan egoteak zer suposatzen duen jakitea"



Ekaineko alean azaldu genizuen bezala, Pili Gabirondok 7 urte estatu espainiarreko gartzeletan igaro ondoren, gure artean dugu berriro ere. Gartzelan igarotako urte luze hauen ondoren, pixkanaka bizimodu berrira moldatzen ari da eta ondorengo lerroetan urte hauetan igarotako bizipenen eta etorkizunerako dituen asmoen berri bildu dizuegu.

Zein gartzelatan izan zara 7 urte hauetan?

Lehenbiziz Carabanchelen sartu ninduten eta ondoren Logroñon, Avilan, Langraitzen eta A Coruñan izan naiz. Carabanchelen kide gehiago geunden eta horregatik hobeto egon nintzen, baina gainontzekoetan bakarrik egon naiz. Preso sozial batzuekin harreman ona egiten da, baina ez da gauza bera, noski. Ez dute gure borroka ulertzen, baina onartzen gaituzte, askotan gutunak idazten eta laguntzen baitiegu. Preso sozialek ez dute gu izorratzeko asmorik, baldin eta kartzelariek horretara behartzen ez badituzte. Avilan, lehen graduan nengoela, funtzionariak preso sozialak nire aurka jartzen saiatu ziren, baina ez ziren jokoan sartu eta ni beraien kidea nintzela erantzun zieten. Beraien artean askotan istiluak izaten dituzte droga kontuak direla eta, baina Avilan, lehenengo graduan egon nintzenean, egoera hain txarra zenez gehiago errespetatzen zuten elkar.

Zer azpimarratuko zenuke urte hauetaz guztietaz?

Emakumezkoen egoera gizonezkoena baino are okerragoa da. Izan ere, 1. graduan jartzen bazaituzte emakumeentzat oso gartzela gutxik dutenez 1. graduko modulua, isolaturik jartzen gaituzte. Bestalde, gartzela barruan ere dispertsioa bilatzen dute eta elkarrekin jarri gaitzaten borrokatu behar izaten dugu. 1. graduan liburuak izateko, telebista ikusteko, ikasteko... trabak besterik ez dizkigute jartzen , baina gartzelaren arabera aldatu egiten da. A Coruñan, adibidez, 1. graduko modulua zabaldu berria zegoen, baina ni bakarrik nengoenez bi hilabetetan funtzionariekin bakarrik izan nuen hitz egiteko aukera. Bestalde, nahi izan dutenean askatu naute, zigor guztia eta gehiago ere bete baitut. Izan ere, Carabanchelen egon nintzen bi urteetan epailea alde nuen arren, ez zidaten erredentziorik eman.

Kondukzioak ere zigorra areagotzeko erabiltzen dituzte...

Kondukzioetan denetarik gerta daiteke eta ahalik eta baldintza gogorrenetan eramaten saiatzen dira. Nik behin bakarrik izan ditut arazoak: komisaldegian 3 bertebra hautsi zizkidaten eta Carabanchelen nengoela bertako ospitalera eraman behar ninduten. Ospitalea gartzelan bertan dago, baina ni bakarrik eraman, gartzelatik atera eta bidean mehatxatu egin ninduten. Ospitalera kirioak jota heldu nintzen eta itzuleran bakarrik ez itzultzea eskatu nuen. Medikuarengana eramaten gaituztenean ere arazoak izaten ditugu, bai bidean bai zaindariek ez dutelako kontsultatik atera nahi izaten. Askotan medikuarengana joatea gaixotasuna jasatea baino okerragoa izaten da. Avilan nengoela errehabilitaziora ateratzeko baimena

lortu nuen, baina medikuak agindutako baldintzetan eraman beharrean furgonetan eramaten ninduten. Haurra oheari lotuta eduki duten kideen kasuak ere entzun ditut.

"Gazteak dira borroka aurrera eramaten ari direnak eta beraiek beldurtu eta geldiarazi nahian dabiltza"

Nola ikusten zenuten kaleko egoera gartzelatik?

Lizarra-Garaziko akordioa dela eta, itxaropen pittin bat piztu zitzaigun, baina ez ginen EAJz gehiegi fido. Dena den, argi dago alderdi abertzaleen batasuna borroka egiteko biderik onena dela. Gertaeren zain geunden, baina argi ikusi genuen nahiz eta muga gabeko su-etenak iraun gobernu espainiarrak ez zuela negoziatzeko batere asmorik eta su-etena hautsi egingo zela.

Zer iruditu zitzaizun ongi etorria?

Hunkigarria izan zen hainbeste jende ikustea. Gainera, bildutako jende asko ez nuen ezagutzen eta harrigarria egin zitzaidan ezagutzen ez duten pertsona bati hain ongi etorri beroa egitea. Gazte ugari zegoen eta borroka aurrera beraiek eramaten ari direla esan beharra dago. Hori argi ikusten dute eta horregatik gazteak beldurtu eta geldiarazi nahian dabiltza.

Nola aurkitu duzu kalea?

Dena oso aldaturik aurkitu dut eta gainera kaleko bizitza erritmoa gartzelakoaren oso ezberdina denez, askoz azkarragoa, bizimodu berriari moldatzea kosta egiten da. Atera ondoren sagardotegi batera joatea zen nire asmoetako bat, baina irrika hori pasa zait. Kalera atera eta gauza mordo bat egin beharra ikusi dut. Presoak azaroaz geroztik muga gabeko gose greban murgildurik daude eta gizartea honek suposatzen duenaz ez dela behar bezala jabetzen iruditzen zait. Izan ere, gose greba berez gogorra bada, gartzelan oraindik gogorragoa. Nik uste, kalean dagoenarentzat ezinezkoa dela gartzelan egoteak zer suposatzen duen jakitea. Gartzelan hartutako zenbait ohitura utzi ezinik nabil: lo egiteko gelako atea ixtearena, esaterako.

Etorkizunaz, zer iritzi duzu?

EAJk apustu gogorra egin behar zuela zirudien, baina Batera, Udalbiltza... geldirik daude eta lehen bezala gaude. Su-etenarekin Argeleko elkarrizketekin bezala gertatu dela uste dut: jendeak itxaropen handiak jarri bai, baina borroka egiteari uzten dio. Badirudi, herriak dena politikarien esku uzten duela, baina herriak ez badu lanean jarraitzen ez dago zereginik. Francoren garaian jendea gehiago inplikatzen zen, diktaduraren aurka borrokatu beharra ikusten baitzuen. Egun, hauteskundeak daudelako demokraziaz hitz egiten da, baina garai hartako berdinak daude boterean eta atxiloketek, torturek, komisaldegietan heriotzek... jarraitzen dute. Gainera, hainbeste urte ondoren, ez zaio Euskal Herriari hitza eman eta arazoa polizialki konpondu nahian darraite. Baina honela arazoak jarraitu egingo du, atxiloketek ez baitute ideiak aldatzea lortzen.

Zer esango zenioke jendeari?

Gobernu espainiarrak bere legea bete dezan borrokatu beharra dugula presoak Euskal Herrira ekarri eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak aske utzi ditzaten. Orain ere, baldintzapeko askatasunean utzi dituzten gutxietako batzuk, berriro ere gartzelan sartzen ari dira eta denok honi aurre egiteko lan egiten ez badugu ildo beretik jarraituko dute. Printzipioz amnistiaz ez naiz ari, eta amnistia helduta ere, ez litzateke eraikuntza nazionalerako pausu bat baino izango. Lan egin beharra dugu, ideiak eskaini...

Dispertsioaren kaltetu nagusiak senideak dira...

Hala da, gartzelan dagoen presoak bisita itxaron besterik ez du egin behar eta gartzelan egonik berdin zaio Martutenen edo Jaenen egotea. Guri ere asko sufriarazten digute, uneoro ondo helduko diren pentsatzen ari baikara, baina kaltetu nagusiak batere errurik izan gabe beraiek dira. Estatuak familiakoak zigortuz guk borroka uztea bilatzen zuen, baina ez dute lortu eta ideiak oso garbi ditugu. Hala ere, senitartekoak zigortzen jarraitzen dute.

Zer asmo dituzu etorkizunerako?

Semeekin egon eta nire bikotekidea bisitatzera joateaz gain, lan egin beharko dut. Bide batez aukera hau aprobetxatu nahi dut Gonzalo agurtu eta herritarrei eskerrak emateko, eskaini zidaten ongi etorria oso hunkigarria izan baitzen. Banuen beste ongi etorri batzuen berri, baina norberak bizitzea oso ezberdina da eta sinestezina izan zen.

Zumarragar eta urretxuarrek ongi etorri beroa eskaini zioten Piliri maiatzaren 20an.

Zorionak!

Agustin, beti musean jokatzen eta sekula irabazi ezin! Ea aurtengo udan zorte handiagoa duzun. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Ainara, agoanta ezazu pittin bat gehiago, komuna gertu duzu eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Aitor, ea hortzak laister ateratzen zaizkizun, bestela zopa jatera ohitu beharko zara! **Zorionak** eta ea urtebetetze egunean opari ugari jasotzen dituzun!

Alexander, hori da hori irrifarrea! Ea urtebetetze opariak jasotzen dituzunean horren irrifartsu jarraitzeko arrazoirik duzun! **Zorionak!**

Amaia, ez duzu ez oso aurpegi alaia! Ez al duzu oraindik topatu zure mutil galaia? Lasai aurrerago ere izango duzu eta garaia! **Zorionak!**

Ander, Errealaren denboraldia eskuak burura eramateko modukoa izan da bai! Lasai, datorren urtean turkiarrekin ikaragarriak izango gara eta!



Andoni, hori al da urtebetetzea ospatzeko aurpegia? Irrifarrerik egiten ez baduzu, kandelak bakarrik itzaliko dira! **Zorionak** eta ondo pasa!

Andoni, hik daukak hik despistatu aurpegia! Oraingoan ere igerilekurako txapela etxean utziko huen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Lasai **Aritz**, badakigu amazulo xamarra zarela eta amatxo alboan jarri dizugu ondo zaindu zaitzan! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Mari Carmen, ez zaitez kezkatu, semea alboan jarri dizugu eta! Ama guztiak berdinak izatea ere! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Arkaitz, igande arratsaldez atera al huen argazkia? Ordu batzuk lehenago Charron hengoenean ez heukan ez aurpegi berbera! **Zorionak!**

Bisi, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi urte guztian argazkian bezain irrifartsu, batzuetan arrazoirik ez badago ere saiatu egin behar da eta!

Casi, ia-ia zorion agurrik gabe gelditu zara, baina txoko bat egin dizugu. Orrialde honek INEMeko zerrenda dirudi! **Zorionak!**

Cristi, ez al duzu uste zure adinarekin jada Cristina deitzeko garaia duzunik? **Zorionak** eta saia zaitez urtebetetze eguna ondo pasatzen.

Begoña, emakumea, ez zaitez hain lotsatia izan eta begiraiozu kamerari aurrez aurre, ez du koska egiten eta! **Zorionak** eta ondo ibili!

Bixen, nabari da bai Santa Isabelak gertu direla, hori da hori irrifarrea! Ez hadi gehiegi desmadratu gero! **Zorionak!**

Beatriz eta Nerea, hau da hau bixki bikote paregabea! **Zorionak** eta ea urtebete gehiagoz bihurrikeria gutxiago egiten dituzuen!

Daniel eta Mari, ez zarete galduko ez! Oraingoan ere bapo jan eta edaten ikusten zaizue! **Zorionak** eta segi orainarte bezala.

Jon, ez al haiz Alpeetara etorri behar? Nocilla soberan diagu! Aurten Oloronen ez, baina Briançonen galtzeko aukera daukak! **Zorionak!**

Floren, etziozu utzi emazteari etxetik ateratzen, bestela hainbeste zorion agurrekin ito egingo gaitu eta! **Zorionak** eta ondo ibili!

Frank, aurtengoan Municheko garagardo festara gonbidatzen ez bagaituzu, bigotea moztuko dizugu! **Zorionak** eta ondo ibili!

Gurutze, ez al dizute hautsontzirik oparitu urtebetetze egunean berarekin paseatzera ateratzeko? Lanekoak utzi itzazu bere tokian! **Zorionak!**



Ignacio, hori da hori zoriontsu aurpegia duzuna, motel! Segi horrela ez duzu zorte makala eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Ignacio, ea semea Zumarragako jaietan sekulako parranda egin ondoren etxera itzultzen denean horren irrifartsu jarraitzen duzun! **Zorionak!**

Igor, formal ibili hadi sargentoa gertu daukak eta hiri begirik gainetik kendu gabe! **Zorionak** eta udako jaietan formal ibili hadi!

Imanol, Arturo Fernández ematen duk motel! Oraingoan ere trajea eta korbata jarri eta festaren batean sartuko hintzen bapo jan eta edan asmoz!

Iñake, Iñake... urtero begirada berbera eskaintzen diguzu eta ez gara batere fido! **Zorionak** eta datorren urterako irrifarre maltzur hori aldatu ezazu.

Jesus, hi bizi haiz hi! Argazkian itxura hori ematen duk behintzat! **Zorionak** eta segi orainarte bezala, merezi du eta!

Jokin, irrifarrea ahotik kendu nahi eta ezin! Hik daukak hik zortea! Ondo ibili eta ea datorren urtean ere horren irrifartsu ikusten zaitugun. **Zorionak!**

Jon, alaitu ezazu aurpegia motel! Udako oporretan zaude eta jaiak aurrerantzean ere bata bestearen atzetik datoz! **Zorionak!**

Jone, utzi irakurtzeari eta jarraitu pegatinak jartzen ziztu bizian, bestela meriendarik gabe gelditu zara eta! **Zorionak!**

Egañari Azpeitiko zezen-plazan irabazteko nahikoa prestatzen ari al haiz? Hik daukak hik Diego Garziaren antza! **Zorionak Jose Antonio!**

Jose Mari, etziozu gehiegi agintzen utzi emazteari! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Josune, ikasturtea bukatu duzulako etzazu festetan burua galdu! Ea formal-formal ikusten zaitugun! **Zorionak!**

Jose, txikitan ez al zizuten erakutsi ahoan ez dela zikinkeriarik sartu behar? Ziur festetan ere hala arituko zarela! **Zorionak!**

Juan, oraingoan ere parrandan? Albokoari parrandak utzi eta Antiora mahaia prestatzen laguntzera joateko esaiok! **Zorionak!**

Juanita, egin beharrekoa egizu hankak irekita, ez baldin baduzu bukatu nahi bustita! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Juanito, esaiozu emazteari egungo haurrek David ipotxa ez dutela ezagutzen eta Pokemon dela modan dagoena! **Zorionak!**

Karmele guapetona! Ondo pasa urtebetetze eguna eta ea datorren urtean ere horren irrifartsu ikusten zaitugun! **Zorionak!**

Leire, albokoa mutillaguna al duzu? Gazte hasi zara kontu horietan... **Zorionak** eta ea urtebetetze egunean zuri oparia egiteko detailea duen.

Luciano, zuk ere opera abesten al duzu? Kantuarena utziozu zure izenkideari, bizilagunak nazka-nazka eginda dituzu eta! **Zorionak!**

Luis, ez al dituk sekula tximak moztu behar? Hori ez duk sukaldean aritzeko piura! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Luis, hik daukak hik pirata itxura! Loroak sorbaldatik hegan ihes egin al dik? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Mabel, nori begira zaude irrifarre ezti horrekin? Lastima argazkian ez den ikusten... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Maite ez al dizute sekula esan Lucía Etxebarriaren sekulako antza duzunik? **Zorionak** eta aprobetxatu uda festarik festa ibiltzeko!

Manuel semearen hezkuntzan hankasartzeren bat izan duzu, bestela ez dago Loperaren jarraitzailea izatea ulertzerik! **Zorionak!**

Mari Carmen, Doña Rogelia jubilatzea detaile polita izan zen, baina David ipotxa ere zaharren egoitzarako hobe dago!

Mari Carmen, bazkarian EPO ematen al diozu "butanitori" arnasik hartu gabe hitz egiten jarraitu ahal dezan? **Zorionak!**

Hilabete honetan **Mari Carmen** izenekoak non nahi agertzen zaizkigu, baina zer egin ote dute panpiñekin? **Zorionak!**

Maria Arantza, festetako aurpegia pixka bat alaitzen ez baduzu, ez duzu batere ligatuko neska! **Zorionak** eta ondo ibili!

Mari Jose, zure etxe berriko bistak erakutsi nahi al zenizkien irakurleei? **Zorionak** eta ondo ibili!

Hona hemen erantzungailuan Iparragirreren kantuez zumarragarrak torturatzen dituen urretxuar fina. **Zorionak Marian!**

Mertxe, eskerrak ez dituzun ordezko hortzak, bestela honezkero ahotik ihes eginak izango zenituen! **Zorionak!**

Miguel, ez daukak ez adarjole aurpegi makala! Argi ibili, gu ere ez gaituk horretan makalak eta! **Zorionak!**

Mikel, argi ibili zaitez atzealdean kokoteko bat emateko prest dagoen esku bat duzu eta! **Zorionak** eta ondo ibili!

Mila, ez al duzu uste ileapaintzaileari orrazkera berri bat egitea eskatzeko garaia denik? **Zorionak!**

Nekane, ez zaitez hain lotsatia izan neska! Ea jaietan amaren gonapetik plazara dantzara ateratzen zaren! **Zorionak!**

Pozik dugu emakumea! Euskaltegian asko ikasiko zuen azken ikasturte honetan nonbait! **Zorionak Nerea!**

Olaia, aurtengo udan zer tokatzen da, "al monte o a la playa"? **Zorionak** eta edonora joanda ere ondo pasa!

Peio, aurten emaztea gertu jarri dizugu Zumarragako jaietan gehiegizko parrandak bota ez ditzazun. **Zorionak!**

Prontxo, non utzi duk Martzelino? Euskal komikietako "pareja de hecho" famatuena banandu egin al da? **Zorionak!**

Zorionak Rosa Mari eta ea jaietan pixka bat irrifartsuago ikusten zaitugun! Ondo pasa urtebetetze eguna!

Rosi, burumakur al zaude zure urtebetetzean familiakoek ez dizutelako oparirik erosi? Emaiezu egurra... **Zorionak!**

Santi, hi al haiz Txirri, Mirri eta Txiribitonen abestiko txiribiteroa? Espinete baino famatuagoa haiz haurren artean...

Santiago, ez zaitez haserretu motel! Mus jokalari onenek ere noizean behin galdu egiten dute! **Zorionak!**

Socorro! Etorri dadila norbait tontakeria gehiago jartzen laguntzera! **Zorionak** eta segi orainarte bezain irrifartsu.

Usua, Santa Isabelak urtean behin dira eta utziozu senarrari nahi adina parranda egiten! **Zorionak!**

Xabier, alaitu ezazu aurpegia motel! Ea oporretatik bueltan irrifarrea ahoan duzula ikusten zaitugun! **Zorionak!**

Nerea, ingelesak zozo xamarrak zirela, baina udako festetan euskaldunak ez ote dira "jatorregiak" izango? **Zorionak!**

Ander, aurten Anglirua platoan igo eta Errioxarrak ikusiz gero zintzurretik zintzilik jarriko ditugu! **Zorionak!**

Jon eta biok zuetaz gogoratu gara, ea zuek ere gu bezain ondo portatzen zareten gurekin! **Zorionak Itziar eta Markel!**

Kristina, bigarren urtebetetzea bete duzu jada eta ez al duzu uste txupetea ahotik ateratzeko garaia denik? **Zorionak!**

Ekaitz, ez al haiz gazte xamarra autoa gidatzen hasteko? Argi ibili, txapelgorriak ez dituk eta lotan egoten! **Zorionak!**

Joxe Mari eta Agustina, hau bai hau bikote fina eta 50 urte ostean oraindik ere bananduezina! **Zorionak** eta ondo pasa zuen ezkontzaren 50. urteurrena!
Zuen senitartekoren bat edo beste ezagutzen dugu, eta ziur ustekabe atseginen bat edo beste prestatuko dizuetela!



Beñat,Mayor Oreja telebistan baino gehiagotan azaltzen haiz hi Otamotzen, irakurleak nazkatuko dituk! **Zorionak!**

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOS ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42

HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

SANTA ISABELAK 2000

EKAINAK 30, OSTIRALA

8:00 - Euskadi enparantzan asteko azoka.
11:30 - "Sekundino Esnaola" Musika Eskolako trikitilarien kalejira.
18:00 - Oilolokie Xoua, Karaokea eta animazioa, Zintzo Mintzo Euskaltzale Elkarteak antolatuta, Euskadi enparantzan.
22:00 - Txosnen irekitzea eta The Hot Dogs eta Señor No taldeen kontzertua. Zelai Arizti pilotalekuan.
23:00 - Elkarteen arteko XXXV. tanborrada: Herriko elkarteez gainera koadrilek, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzek eta, Zumarragako musika bandak eta Pasai txarangak hartuko dute parte.
00:30 - Dantzaldia Gozategi taldearekin.
Goizeko 3ak arte: kalejira Pasai txarangarekin.

UZTAILAK 1, LARUNBATA: KOADRILEI ESKAINITAKO EGUNA

9:30 - Zumarragako IV. Xake Txapelketa.
10:00 - Zumarragako Musika Bandaren eskutik kalejira.
11:30 - Koadrilak elkartu eta bazkarirako mahaiak eta aulkiak montatzen hasi, Euskadi enparantzan.
12:00 - Kalejira Vilanova i la Geltrúko Agrupació de Balls Populars taldearekin.
13:00 - Poteo herrikoia txistulari eta trikitilariekin.
13:00 - Zumarragako Musika Bandaren kontzertua Euskadi enparantzan. Musikarekin batera Albero taldeak bere dantzak eskainiko dizkigu.
14:00 - Koadrilen bazkaria Euskadi enparantzan.
16:30 - V. Mus Txapelketa, Txoko eta Haizea tabernek antolatuta Bidezar kalean.
17:30 - Umorezko desfilea koadrilek antolatuta.
18:30 - Ohitura den bezala, herriko agintariek, "Antzinako Ama" txistulari taldearekin batera, Antiguako Amari ikustaldia egingo diote.
18:30 - Dantza Libre Txapelketa. Zumardi elkarteak antolatu eta Euskal Herriko bikoterik onenek parte hartuko dute Euskadi enparantzan.
19:30 - Andre Mari Jasokundearen parroki elizan, Parrokiko abesbatzak abestuta, Eslavaren Salbea.
19:45 - Txistorra jana txosnetan.
20:00 - Dantza erakusketa Euskadi enparantzan. Honako dantzataldeok izango dira: Urretxuko Lurra, Vilanova i la Geltrúko Agrupació de Balls Populars eta Zumarraga-Urretxuko Irrintzi. (Eguraldi txarra eginez gero, Beloki pilotalekuan egingo da jaialdia).
23:00 - Su artifizialak, Caballer etxearen eskutik.
23:30 - Suzko zezena herriko kaleetan.
23:45 - "Musika Talde Mugimendua" kolektiboaren, MTM fanzinearen aurkezpena eta rock kontzertua Luna Negra, All Breakers eta Spezial Guest herriko taldeekin Zelai Arizti pilotalekuan.
23:45 - Kalejira "Jo ta behera" txarangarekin.
00:00 - "Larrain dantza" Euskadi enparantzan.
00:30 - Dantzaldia "Mandingo" orkestrarekin Euskadi enparantzan.

UZTAILAK 2, IGANDEA: SANTA ISABEL EGUNA

8:00 - "Antzinako Ama" txistulari taldearen kalejira.
9:00 - Santa Isabel jaietako III. Argazki Rallya.
9:30 - Euskadi enparantzan elkartu eta herriko agintariak eta herritarrak Andre Mari Jasokundearen parroki elizara joango dira herriko apaizekin batera Antiguako Amaren elizara igotzeko.
11:00 - Meza nagusia. Hasieran, ohitura den bezala, herriko dantzariek ezpatadantza dantzatu eta eskainiko diote Ama Birjinari. Ondoren, berriz, elizaren inguruan prozesioa txistulari eta ezpatadantzariekin batera.
12:30 - Aurreskua eliza aurreko zelaian.
13:00 - Bertsolariak (Joxe Agirre eta Imanol Lazkano), Tolosako dulzaineroak eta trikitilariak.
14:00 - Herri bazkaria Antio inguruan bertsolari eta trikitilariek alaiturik.
Ondoren, erromeria txistulariekin, Tolosako dulzaineroekin eta soinujoleekin.
19:00 - Antiguako Amari bederatziurrena eta errosarioa.
20:30 - Agurra eta itzulera agintariak eta ezpatadantzariak aurretik direla, eta txistulariak, dulzaineroak eta trikitilariak soinu jotzen direla.
21:15 - Kaleko ezpatadantza Euskadi enparantzan.
21:30 - Erromeria txistulari eta trikitilariek soinua jota.
23:00 - Kontzertua, Zartateko, LIF eta Marrubi Sound taldeekin Zelai Arizti pilotalekuan.
23:30 - Kalejira Dunbots txarangarekin.
23:30 - Dantzaldia Akelarre taldearekin.

UZTAILAK 3, ASTELEHENA: JUBILATUEI ESKAINITAKO EGUNA

12:30 - Idi probak Euskadi enparantzan. Parte hartzaileak: Paulo Aranbarri, Urruzti eta Fernando Salegi.
14:30 - Jubilatuen bazkaria. Bazkalostean, Zumarraga-Urretxuko Goizalde Jubilatuen Abesbatzaren saioa Alejandro Dominguezen zuzendaritzapean. Ondoren, dantzaldia izango da.
18:00 - Idi probak Euskadi enparantzan. Parte hartzaileak: Elorriaga, Balentiña Jatetxea eta Belarreta. Herri kirol saioan, tarteka, Zumarragako Trikitixa arituko da soinu jotzen.
19:30 - Idi probatako sariak banatzea.
20:30 - Sama Siku fanfarriaren animazioa.

UZTAILAK 9, IGANDEA

9:00 - Galeperra E. A. elkarteak antolatuta herri mailako Plater Tiro Lehiaketa. "Bartolo Iturberen omenezko" sari berezia. Odriozolako sailetan.

GELTOKIETAKO JAIAK 2000

UZTAILAK 7, OSTIRALA

19:00 - Jaiei hasiera ematea.
Ordu berean Partxis txapelketari hasiera emango zaio. Bertan edonork parte har dezake tranposoek izan ezik.
Ondoren, Aldiri K.E.ko konpartsak, Urretxuko erraldoiek eta buruhaundiek, Urretxuko dulzaineroekin batera, auzoko txoko guztiak alaituko dituzte.
19:30 - Auzoko tabernetan Elorza Anaiak eta Zumarragako Trikitixak alaituriko poteoa.
20:00 - Koralak Lourdesko Ama Parrokian. Bertan parte hartuko dutenak: Irimo Azpi, Ainhoa Enatarriaga eta Miren Gurutze Plazaola, Mila Osinalde eta Zumarragako Musika Banda.
22:30 - Dantzaldia Alaitz eta Maiderren eskutik.

UZTAILAK 8, LARUNBATA

11:00 - Haurrentzako jokoak Urretxuko Aisialdi taldeak antolatuta.
Arratsaldeko 15:00etatik 16:00ak arte gutxienez lokuluska berrindartu ahal izateko.
16:30 - Mus Relampagorako inskripzioa itxi egingo da Txindoki zaharrean. Informazio gehiago karteletan.
17:00 - Haur berbena, umeentzako jaialdia musikarekin zuzenean, pailazoekin, zangoluzeekin, jokuak, dantzak...
17:30 - Toka Txapelketa.
19:00 - Poteoa Zumarragako Trikitixak eta Elorza Anaiek giroturik.
19:30 - Lurra eta Irrintzi dantza taldeen ekitaldia.
22:30 - Panta Rhei antzerki taldeak Sarabá antzezlana eskainiko digu Domingo de Mendiaraz enparantzan.
00:00 - Dantzaldia La Nuevo Talismán Orquesta Showren eskutik. Aldi berean, Aldapa Txarangak auzo osoa girotuko digu.
Atsedenaldian txerri harrapaketa izango da, parte hartu ahal izateko biko taldeak egingo dira bi partaideek hankak elkar loturik izango dituztelarik.

UZTAILAK 9, IGANDEA

7:30 - Sukaldariek eta beraien morroiek otorduaren prestaketari ekingo diote.
9:30 - Urretxu eta Zumarragako txistulariak auzoa esnatzen saiatuko dira, ea aurten lortzen duten.
12:00 - Herri Meza auzoko hildakoen alde.
12:30 - Herri kirolak Domingo de Mendiaraz enparantzan. Iparraldeko herri kirolak ikusi ahal izango ditugu: lastoa altxatzea alturan, lasto jaurtiketa, junguria eta zakua bizkarrean dutela karrera. Honetaz gain, Iñaki eta Inazio Perurena harrijasotzaileak eta aizkolariak.
Ordu berean, Batukadak gure kaleak alaituko ditu.
14:00 - Asto Lasterketarako hesi banaketa egingo da, horretarako auzokideen laguntza eskatzen dugu.
14:30 - Egundoko bazkaria Eugenio eta Nagore trikitilariek alaiturik. (Txartelak tabernetan salgai daude eta azkar ibili 150 bakarrik daude eta).
18:00 - Batukada Asto Lasterketa girotzen saiatuko da.
18:30 - Asto Lasterketa. Bertan jendea parte hartzera gonbidatzen dugu. Ezinbestekoa da mozorroturik joatea.
22:00 - Dantzaldia Irailerako 6 taldearekin.
Charro tabernan egundoko txokolatada egongo da, gorputzak iraun bitartean.

UZTAILEKO AGENDA

-Haurrentzako ekintzak

Udalekuak: jolasak, irteerak, San Fermin eguna, eskulanak, antzerkia, etab.
1989-1994 urte bitartean (biak barne) jaiotako haurrentzat.
Uztailaren 4tik 21era bitartean, goizeko 10etatik 1etara.

-Erakusketak

Olatz Goiburu eta Jaione Berasategiren pintura erakusketa.
Ekainaren 29tik uztailaren 9ra bitartean, Juan de Lizarazu erakusgelan.

-Lehiaketak

Pintura, argazki, komiki eta bertso-paper lehiaketetara lanak aurkezteko epea irailaren 8a bitartean zabalik.

-Kirolak

-Goierri Zikloturismo saila: Urretxu-Azpeitia-Getaria irteera uztailaren 15ean goizeko 10etan. Azpeitian Trenaren museoa ikusiko da eta Getarian bazkaldu. Itzulera autobusean egingo da. Informazioa eta izen-ematea: Goierri K.E. Tel: 943 72 05 67, izen emateko epea: uztailaren 13ra arte. Prezioa: 1.500 pta. (bazkaria barne).
-Goierri Mendi Saila: Piriniotara mendi irteera (Benasque edo Aran bailara). Egunak: uztailak 22, 23, 24 eta 25.

Urretabizkaia anaiak, profesional mailara jauzia

Unai eta Beñat 1994ko Goñiren Omenezko Pilota Txapelketan irabazitako txapelekin.

Urretabizkaia anaiak aspaldiko urte hauetan afizionatu mailan punta-puntako bikotea dugu. Profesional mailan primeran dabiltzan pilotari askoren aurka partidu bikainak jokatu dituzte eta eskaintzak izan arren, afizionatutan jarraitu dute. Baina azkenaldi honetan afizionatu maila asko jaitsi da, pilotari onenak profesionaletara pasa baitira, eta motibazioa galtzen ari zirela jabeturik, GARFE enpresarekin saltua ematea erabaki dute. Asperekin hitzarmena duen enpresa honekin ondorengo bi urte eta erdirako kontratua sinatu dute, urtean gutxienez 40 partidu jokatzeko asmoz. Ea zortea duten eta aurki zumarragarrak punta-puntako pilotarien aurka jokatzen ikusteko aukera dugun.

Noiz eta nolatan hasi zineten pilotan jokatzen?

Unai: 6 edo 7 urte nituela aitonarekin La Salleko frontoira joan nintzen eta pilota bat aurkitu nuen. Inorena ez zenez, pilota horrekin jokatzen hasi nintzen eta gero Ikastolan jarraitu nuen. Ondoren Zumarragako pilota eskolara joan nintzen eta Herrien Arteko Pilota Txapelketa jokatzen hasi nintzen.

Beñat: Ni 5 edo 6 urterekin edo hasi nintzen anaiak animaturik. Unaik ea La Sallera joango nintzen esan zidan eta ezetz esan niezaiokeen bezala, baietz esan, eta ordutik pilotan ari naiz. Orduan orain baino askoz ere ume gehiago aritzen ginen pilotan.

Pilotaz gain, beste kirolen bat ere egin al duzue?

U: 18 urte bete arte futbolean aritu nintzen Urolan, baina utzi egin behar izan nuen, ez bainuen jada bi kiroletan batera aritzeko denborarik eta askotan partiduak ordu berean bainituen. Pilotan jarraitzea aukeratu nuen frontoiko giroa gehiago atsegin nuelako eta kirol indibidualagoa denez, jokatzeko aukera gehiago nuelako.

B: Ni ere futbolean aritzen nintzen eta jubeniletan utzi nuen arrazoi beragatik.

Noiz hasi zineten bikote moduan jokatzen?

B: Duela bospasei urte, ni afizionatu mailan aritzeko adinera heldu nintzenean. Ez geneukan batera jokatzeko asmorik, ni aurrelaria bainintzen, baina aurrelari postuan Herrien Arteko Pilota Txapelketan Jabi Erostarbe zegoen eta atzelari postura moldatu behar izan nuenez afizionatutara heltzean anaiarekin jokatzen hasi nintzen.

Zeintzuk dira elkarrekin irabazi dituzuen txapelketa nagusiak?

Lehenengoz Goñiren Omenezko Txapelketa irabazteak ilusio izugarria egin zigun eta oso polita izan zen, jokatu aurretik irabaziz gero txapelak bere familiari ematea pentsatua baikenuen. Txapelketa dexente irabazi ditugu, baina nagusienetan azpitxapeldun izan gara: Diario Vasco Txapelketan bitan, Antiguokoan... Urte hauetako guztietako pena nagusia Herrien Arteko Pilota Txapelketan finalera iritsi ez izana da, oso txapelketa polita baita eta zumarragarrei poz handia emango baikenieke.

Pilota mundua asko aldatu al da azken urte hauetan?

U: Materiala aldatu da gehienbat, egun pilotakadei eta errebotera heltzeari ematen zaio garrantzia eta horretarako pilota aproposak jartzen dira profesionaletan. Ez da hainbeste begiratzen pilotaria izatea edo kale gutxi egitea. Pilota errebotera bidaltzeko gai denak hobetzeko astia izango duela pentsatzen da eta profesionaletara pasatzeko aukera ematen zaio. Hori dela eta, telebistan partidu txar ugari ikus-

ten dira. Dena den, afizionatu mailan materiala txapelketatik txapelketara asko aldatzen da, batzuetan motelak jartzen dituzte, besteetan bizi-biziak...

B: Duela hamar urteko eskuz banakako finaletan egungoetan baino askoz ere material motelagoa ateratzen zen. Pilota haiek ez ziren 7. edo 8. koadrotik ateratzen, egun, berriz, 4. koadroan jotzen den pilotakada errebotera heltzen da.

U: Lehen pilotak sekula ez zuen sekula 8. koadrotik atzera botatzen, egun, berriz, Goñik dexentetan egiten du. Nire ustez, Goñik indarra badu, baina Tolosak ere, adibidez, indarra bazuen.

Herriko pilotazaletasuna ere aldatu al da?

U: Herrien Arteko Pilota Txapelketa Urretxun jokatzen genuenean askoz ere jende gehiago joaten zen frontoira, baliteke lehenago talde hobea genuelako izatea. Azken urteotan Txapelketa honek herrian sortzen zuen giroa galdu egin da eta oraingo gazteek ez dute guk genuen gogo hura.

B: Lehen, La Salleko frontoian, nahiz eta irekia izan, elurra edo euria egiten bazuen ere, bertan izaten ginen eta frontoia beteta egoten zen. Orain sekulako frontoia dugu eta jende gutxiago hurbiltzen da, baina hau herri guztietan gertatzen ari dela uste dut. Pilotazaletasuna bultzatzeko zerbait gehiago egin beharko litzateke.

U: Eskola kirolaren barnean pilota gehiago bultzatzen saiatu beharko lirateke.

Nolatan erabaki duzue profesionaletara pasatzea?

U: Afizionatu maila zapuztua gelditu da, pilotari asko profesionaletara pasa direlako eta txapelketa gutxiago antolatzeaz gain, maila gero eta eskaxagoa delako. Hori dela eta, motibatzea gero eta zailagoa egiten zitzaigula konturatu ginen eta azkenean jauzia ematea erabaki dugu.

B: Gure mailan aritzen ziren asko eta asko profesionaletara pasa direla eta nahiko gustura ari direla ikusi dugu eta gu ere nahiko ondo ibili gaitezkeela uste dugu. Froga egin behar dugu eta afizionatuetara itzultzeko aukera beti dagoenez... Oraingoz, entrenamenduetara gogotsu etortzea behintzat lortu dugu.

Garfe enpresarekin pasa behar duzue...

B: Asperekin hitzarmena duen enpresa bat da eta askotan Aspeko pilotariek eta Garfekoek batera jokatzen dute. Bi urte eta erdiko kontratua sinatu dugu eta urtean 40 partidu gutxienez jokatuko ditugula agindu digute, lehenengoa uztailaren hasieran, eta printzipioz elkarrekin jokatuko dugu. Gure lehiakideak Aspen 2. mailan dauden gehientsuenak izango dira: Almandoz, Aritz, Atxa, Otxandorena...

Zeintzuk dira zuen helburuak?

B: Ahal den hobekien aritzea eta azkenaldi honetan galdua genuen ilusioa berreskuratzea dira gure helburuak oraingoz.

U: Bestalde, profesionaletan aritzeak gure benetako maila zein den ikusteko aukera eskainiko digu. 2. mailako txapelketetan ondo aritzeko aukera izango dugula uste dut.

Unaik eta Beñatek ilusioa berreskuratu dutela diote.

TXOKOAN

Afizionatu mailan ikusi duzuen pilotari onena?

U: Nagore eta Elkoro.

B: Idiazabalgo Mujikak askoz ere gehiago egingo zuela uste genuen.

Gustukoen duzuen pilotaria?

U: Retegi II.

B: Nik ere bai, frontoitik kanpo frontoian bezain argi eta garbi aritzen delako.

Gustukoen duzuen frontoia?

B: Beloki pilotalekuan zabaldu ondorengo lehen urteetan beste frontoi askotan baino askoz ere giro hobea bizi zen. Diario Vasco Txapelketako finaletan ere profesional mailako partidu gehienetan baino giro hobea izaten zen.

U: Antiguokoa eta Elgetakoa ere oso frontoi onak da.

Esaiguzue bakoitzak bestearen birtuteak zeintzuk diren.

B: Orainarte bere jokaldi onena efektuarekin bidalitako bi pareta izan da, baina azkenaldi honetan airez ere izugarri hobetu du. Azken hilabete hauetan sekulako jokoarekin dabil eta oso momentu ona dugu profesionaletara pasatzeko.

U: Beñatek kantxa oso ondo kubritzen du, baina iazko udan pilotakada itzelak ere jo zituen.

Batak-besteari defekturik ikusten al diozue?

Primeran elkar ezagutzen dugunez batak bestearen gabeziak estaltzen ere ondo ikasi dugu. Elkarren aurka jokatzea suertatzen bazaigu, pilota nola eta nora bidali badakigu. Hobe elkarrekin jokatzen jarraitzen badugu gure gabeziak ezkutuan egon daitezen.

Miguel Bilbao

Miguel aski ezaguna dugu Urretxu eta Zumarragan, oso gaztetatik bi herriotan sortu diren ekimen kultural ezberdinen sortzaile zein bultzatzaile izan baitugu. Betidanik margotzea oso gustukoa izan du eta orain beste lagun batzuekin batera bere bokazioa duen honi modu egokian ekiteko lokal haundi bat alokatzekotan da. Bere ustez, Zumarraga eta Urretxun ez dago kultur mugimendu handirik eta Gaztelekua berriro zabaltzen denean bertan jendeak berriro ere artearen alor ezberdinak jorratzeari ekingo dion itxaropena du.

Dena den, Miguel bokazioz artista den arren, ofizioz hamaika lanbide ezagutu ditu oso gaztetatik: mekaniko, bodegero, meatzari... lanetan aritu ondoren, duela laupabost urtez geroztik postari lanetan dugu Ezkion, eguraldi ona egiten duenean motoz eta bestela furgonetaz.

Miguelen umorea ezagututa, seguraski atea birritan jo baino lehen zabalduko diote ezkiotarrek!

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Itsasontziko sukaldaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egon, poteatu...

-Bizitzeko toki bat?

Bizi naizen leku bera.

-Gutunak motorrean ala oinez banatzea nahiago?

Motorrean hobe...

-Maitasun gutunak ala fakturak banatzea nahiago?

Heracliorenak banatzea nahiago dut.

-Egia al da postariak beti birritan deitzen duela?

Bai, eta gehiagotan ere bai.

-Gutunak idaztea ala jasotzea nahiago?

Idaztea nahiago dut. Dena den, garai batean hiru urte eman nituen Bartzelonan lanean eta faltan somatzen dut orduan bezala gutunak idatzi zein jasotzea.

-Nori ez zenioke inoiz gutunik bidaliko?

Jende askori, mundu guztiari ezin baitiot gutunik idatzi.

-Errealekoa ala Athletic-ekoa zara?

Errealekoa, familiako ardi urdina naiz.

-Bilbao ala Donostia?

Errealekoa naizela esan dudanez, Bilbao aukeratu beharko dut denekin ongi geratzeko...

-Sekula bota duzun parrandarik itzelena?

Bartzelonan nengoela, bertan igarotako inauteri batzuk gogoratzen ditut bereziki.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Obelix.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagunekin.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Musika.

-Eta jasotakoa?

Alkondara bat.

-Data bat?

Soldaduskatik libratu nintzeneko eguna.

-Neska izen bat?

Olatz

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Harrapatzen ditudan guztiak.

-Gustuko telebista saioa?

Gaurkotasun-erreportaiak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Quien dijo miedo.

-Liburu bat.

Asko.

-Filme bat.

Torrente.

-Gustuko abestia?

Guantanamera.

-Soinu bat.

Euriarena, barazkien gainean erortzen denean.

-Usain bat.

Egur usaina.

-Ukitzeko...

Beroa eta hezea den edozer.

-Janari bat.

Antxoak.

-Ura ala...

Ardoa, kolore guztietakoa eta burbuilekin, burbuila gabe...



URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA

Pelikuletan bezela hemen
ere heldu da azkena
ahal den ondoen gorde zazue
hemengo oroitzapena.
Orain hasten da askorentzako
azterketarik zailena
jakinduria ez baita soilik
liburuek diotena
baizik bizitzan denborarekin
ikasiko duzuena.

Batzuk badoaz besteak datoz
bizitzan ohi den bezela
azkenik ere libre zarete,
agur betiko kartzela!
Nahiz eta orain bazoaztela
inork ez uste horrela
seguru gaude, agian noizbait
pentsatuko duzuela
aukera berriz izanez gero
bueltatuko zinatela.

2. batxilergoa

JAI ETA OPOR ONAK IGARO GUZTIOK!

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA
FLORIDA - GAU-MOTZ - GOIKO KALE - LAKET
NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX